

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Hutsa zuzentzea 2021eko urtarrilaren 22ko ALHAOn (8. zk.) argitaratutako 146 iragarkian, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 696/2020 Erabakiari buruzkoan. Erabaki horren bidez, onespena eman zitzaion irabazteko asmorik gabeko elkarte eta erakundeentzako dirulaguntzak emateko deialdiari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera jarduerak garatzeko, 2021eko ekitaldian**

Hutsa egin denez gero 2021eko urtarrilaren 22ko ALHAOn (8. zk.) argitaratutako 146 iragarkian, zuzendu egin behar da, honela:

Erabakiaren eranskinaren 4. artikuluko 2.2. puntuan, honako hau dioen tokian:

2. Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrek 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren justifikazioan, helburuetan eta ekintzetan genero ikuspegia (II. eranskineko 1., 2.1. eta 2.2. puntuak) txertatzen ez duten proiektuak eta erakundearen berdintasun programarekin lotuta ez daudenak.

Beste hau esan behar du:

2.2. Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrek 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren justifikazioan genero ikuspegia (II. eranskineko 1. puntua) txertatzen ez duten proiektuak eta ikuspegi hori behar bezala justifikatzen ez dutenak; alegia, ez dutenak jasotzen emakumeen eta gizonen beharrian eta egoera espezifikoaren azterketa berezia, proiektuak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko erdietsi nahi dituen helburuak eta ekintzek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko egiten duten ekarpena.

Vitoria-Gasteizen, 2021ko otsailaren 17an

*Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua*  
**JUAN DANIEL MARTÍNEZ MONGE**